


DEIALDIA: URTEKO DIRULAGUNTZAK

GETXOKO KULTUR ELKARTEENTZAT 2021






NORI ZUZENDUTA DAGO?

Getxon egoitza soziala duten irabazi-asmorik gabeko kultura-elkarteei.



ZER ESKAINTZEN DA DEIALDI HONETAN?

130.000 euro gehienez, kultur elkarten ohiko jardueratik eratorritako gastuak batera finantzatzeko: lokalen alokairua, hornidurak (elektrizitatea, telefonoa, ura), materiala, langileak, etab.




ZEIN HELBURUREKIN?

- Erakunde horien iraupenari laguntzea.
- Getxoko elkarten sarea bultzatzea.




LAGUNTZA HAUEK BATERAGARRIAK AL DIRA BESTE DIRU-LAGUNTZA BATZUEKIN?

- Bai, beste erakunde publiko eta pribatuekin, helburu berarako, betiere diruz lagundutako guztizkoak ez badu gainditzen jardueraren zenbateko osoa.
- Ez, Getxoko Udaleko beste sail batzuek finantzatutakoekin.



NON DAGO ESKURAGARRI DEIALDIARI BURUZKO INFORMAZIOA?


www.getxo.eus/dirulaguntzak



NON ETA NOIZ ARTE AURKEZ DAITEZKE ESKABIDEAK?

Maiatzaren 16ra arte:

- Administrazio Elektronikoaren Bulegoa (www.getxo.eus webgunearen bidez).
- Herritarrentzako arreta-bulegoak.
- Muxikebarriko Informazio Bulegoa.




ZER DOKUMENTAZIO AURKEZTU BEHAR DA?

- Eskabidea aurkezten duen pertsonaren **NANaren fotokopia**.
- Erakundearen **IFKren fotokopia**.
- Eskeraren aurreko urtean egindako **jardueren memoria** (Aurreko urtean diru-laguntzarik eskatu ez bada).
- 2021ean garatu beharreko **jardueren proiektu** xehatua.
- 2021erako kalkulaturako **aurrekontua**.

Eta:

- Kultur Etxeak baloraziorako eska dezakeen beste edozein agiri.



NOLA EBALUATZEN DIRA ESKAERAK?

Honako irizpide hauek oinarri hartuta:

- Proiektuaren kalitatea eta kultura- interesa Getxorako.
- Bideragarritasun ekonomikoa.
- Euskara.
- Berdintasuna.
- Kulturartekotasuna eta integrazio soziokulturala.



NOIZ JAKINARAZIKO DA DEIALDIAREN EMAITZA?

Gehienez ere, eskabideak aurkezteko
epea amaitu eta bi hilabetera.



NOLA FINKATZEN DA DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA?

- Eskatutako zenbatekoa oinarri hartuta eta ebaluazioan lortutako puntuen arabera.
- Eskabideek gehieneko kreditua gainditzen badute, koefiziente zuzentzailearen bidez.
- Beste diru-laguntza batzuk jasotzean gain-finantzaketarik gertatzen bada, erakunde eskatzaileak Kultur Etxeari itzuli beharko dio hark finantzatutako guztizkoari dagokionez emandako zenbatekoa.



ZEINTZUK DIRA ESKATZAILEAREN BETEBEHARRAK?

- Aurkeztutako proiektuak gauzatzea.
- Getxoko Udala aipatzea babesle gisa, eta horren logotipoa sartzea sustapen-euskarrietan, diruz lagundutako jarduerari buruzko testuetan edo dokumentuetan. Horiek euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu beharko dira.
- Diru-laguntzaren justifikazioa aurkeztea.



ZER DOKUMENTAZIO BEHAR DA LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIORAKO?



NOIZ ARTE AURKEZ DAITEKE JUSTIFIKAZIOA?

- Jardueraren memoria xehatua, material grafikoa barne, jarduera egin dela egiaztatzeko.
- Jarduerak eragindako diru-sarrera eta gastu guztien balantzea
- 60.000 eurotik gorako diru-laguntzen kasuan: gastu guztien jatorrizko egiaztagirak (fakturak), BEZa banakatuta.
Beti Din-A4 formatuan. Ez dira onartzen albaranak, tiketak edo bestelako dokumentuak.
- 60.000 eurotik beherako diru-laguntzen kasuan: gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua
- Catering, bazkari eta antzeko gastuek ezin dute inola ere programaren kostuaren % 10 gainditu.
- Langileen gastuekin batera nominak edo soldata-ordainagirak aurkeztu beharko dira.
- Jardueren harira argitaratutako komunikazio-elementu bakoitzaren (kartelak, liburuxkak, liburuak, bideoak) ale bana.

Jarduerak sortutako gastuen % 100 justifikatu beharko da nahitaez, eta ez Kultur Etxeak emandako zenbatekoari dagozkionak bakarrik.

Epea **2022ko urtarrilaren 31n** amaituko da.

